



Arartekoaren Ebazpena, 2010eko maiatzaren 17koa. Horren bidez Gasteizko Udalari gomendatzen zaio ELA sindikatuak egin duen eskaera, Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluan parte hartzekoa, behar bezala ebazteko.

Aurrekariak

1. ELA sindikatuak kexa bat aurkeztu zuen Gasteizko Udalak ukatu egin ziolako Hirugarren Adinekoen Kontseiluan parte hartzeko eskaera. Sindikatu honek, Udalerriko Gizarte Kontseiluan parte hartzeaz gain, Ingurumeneko Sektore Kontseiluetan eta Euskararen Sektore Kontseiluan ere hartzen zuen parte, azken horretan beste sindikatu batzuekin batera.

ELA sindikatuak egindako eskaeraren aurrean, Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluko buruak, 2008ko irailaren 30ean, kontsulta bat egin zion Gasteizko Udaleko Abokatu Nagusi Buruari. Hain zuzen ere, galdetu zion sindikatu hori egon ote zitekeen kontseiluko funtzionamenduari buruzko barne arautegiko 5. artikulua biltzen dituen kasuetako batean.

Gizarte Gaietako zinegotzi ordezkariak, 2008ko abenduaren 4ko idazki bidez, sindikatu erreklamatzailerari idazki bat bidali zion eta bertan adierazi zion aholkularitzak erantzun hau eman zuela, ondorioan hori barne hartuz:

“...ELA a fecha de hoy no se encuentra inscrito en el Registro Municipal de Entidades Ciudadanas regulado en el capítulo I del Reglamento de Participación Ciudadana”.

“...la inscripción constituye requisito previo necesario para ser componente de un consejo sectorial, porque así lo disponen el artículo 5 del Reglamento interno de funcionamiento para el Consejo Sectorial de Tercera edad, en relación con el artículo 60 del Reglamento de participación Ciudadana”.

“Por tanto y en CONCLUSIÓN el parecer de esta Asesoría Jurídica es el siguiente:

Procede desestimar la solicitud formulada por el Secretario Interprofesional de ELA.”

Emandako agiriak baloratu ondoren, Arartekoak, 2009ko urriaren 8an eta 2009ko abenduaren 3an (azken hau errekerimendua da, lehenengo idazkiaren erantzunik jaso ez zelako egina), udalari eskatu zion kexan agertzen ziren gaietarako buruzko informazioa ematea; zehazki, kontraesanari buruzkoa, hau da, sindikatuak sektore kontseilu batzuetan parte hartzea, eta beste batzuetan parte ez hartzea. Horrez gain, Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluaren





Barne Arautegiko 5. artikulua, d) atalean, aplikatzeari buruzko iritzia eskatu genion.

2. Gizartegintza Saileko zuzendariak, 2009ko abenduaren 22ko idazkiaren bidez, Gizarte Gaietako zinegotzi ordezkariaren oniritziarekin, 2008ko abenduaren 4an ELA Sindikatuari jada bidali zion erantzun berbera bidali zigun (jakinarazpen hori lehen aipatu dugu).

Gainera, aurreko paragrafoan aipatutako barne arautegiko 5. artikuluko atala aplikatzeari buruz jaso genuen idazki horrek adierazten zuen udalbatzako idazkariari eskatu ziola Arartekoaren bulegoak egindako errekerimenduari epe barruan erantzuteko beharrezkotzat jotzen dituen zuzenbideko oinarriak arrazoitzeko. Horregatik, honakoa adierazi zuen:

“...Por ello, sirva la presente como una primera parte de la información que este ayuntamiento envía ante su requerimiento a la espera de contar con la valoración adicional de la Secretaria del Pleno Municipal”.

Bestalde, aurreko jakinarazpena egin zenetik hilabete eta erdi igaro zela aintzat hartuta, erakunde honek beste errekerimendu bat egin zuen. 2010eko martxoaren 4an alkatearen jakinarazpena jaso genuen eta, horrekin batera, 2010eko urtarrilaren 12ko bileran idazkariak egindako txostena. Txosten hori, adierazitakoaren arabera, gizarte gaietako zinegotzi ordezkariak hala eskatuta egin zen.

Txostenak hizpide duena hauxe da: *“Parte hartzeko Sektore Kontseiluen osaera, eta Gasteizko Udalaren Udalerriko Gizarte Kontseiluarena. ELA-STV Sindikatua kontseiluetako kide izateko aukera.”*

Sektore Kontseiluaren eta Gizarte Kontseiluaren helburuak eta osaerak aztertu ondoren, idazkariak bere txostenean –Herriaren Partaidetzari buruzko Udalerriko Arautegi Organikoari jarraiki– honakoa adierazi zuen, gai honi dagozkion ondorioetarako:

“...No obstante, cuando así lo solicitan, otras instituciones directamente vinculadas con el área objeto de interés de un Concejo Sectorial son admitidas a participar en dicho Consejo, colaborando con las entidades ciudadanas en la obtención de determinados fines de estos órganos, como son, por ejemplo, “potenciar la coordinación entre diferentes instituciones o entidades públicas o privadas”, elaborar propuestas” o promover la realización de estudios, informes y actuaciones”...”.

Erreklamazioa ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu honako gogoeta hauek helaraztea:



Gogoetak

1. Parte hartzeko baliabideei eta moduei buruzko arauak erregulatzen dituen Herritarren Partaidetzari buruzko arautegiak honakoa dio arrazoiaren azalpenean:

“Vitoria-Gasteizko Udalak, gizartearen parte hartzeko gaitasunari zentzua emateko beharraz jabeturik, herritarren parte hartzea onartu, bermatu eta sustatuko du, dela banaka, dela gai jakinen inguruan bildutako talde eta foroen bitartez -gizarte gaiak, kultura, hezkuntza, kirola, ekonomia, kontsumitzaileen eskubideak, lan-kontuak, berdintasunerako politikak nahiz beste jorratzen dutelarik ere.”

Horretarako, herritarren partaidetza duten kontsultarako hainbat organo ezartzen ditu, nahitaezko txostenak egin ditzaketan organoak eta, behar izanez gero, proposamenak edo iradokizunak egin ditzaketan: sektore kontseiluak, herriko gizarte kontseilua eta lurraldeetako kontseiluak. Organo bakoitzak helburu desberdina du. Hala, Udalerriko Gizarte Kontseilua udalerrian ordezkapen handiena duten erakunde ekonomiko eta sozialek nahiz herritar erakundeek parte hartzeko eta eztabaidatzeko organoa da; bertan garrantzi handiko gaiak nahiz izaera estrategikoa duten edo gizarte garapenean eragina duten proiektuak eztabaidatu, proposamenak egin eta informazioa ematen da (Herritarren Partaidetzari buruzko Arautegiko 74. artikulua) eta berariaz ezarrita dago udalerrian gehiengoa duten erakunde sindikalen parte-hartzea.

Bestalde, Sektore Kontseiluen helburua da udalaren eskumenekoak diren tokiko bizitzako sektoreetan herritarren eta erakundeen parte-hartzea sustatzea eta bideratzea, horrela, herritarrek udalerriko gai publikoetan ardura handiago izatea ahalbidetuko da (Herritarren Partaidetzari buruzko Arautegiko 58. artikulua).

2. Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluari dagokionez, funtzionamenduko barne arautegi onartuak, herritarren partaidetzari buruzko arautegian ezarritakoaren arabera, organo honen osaera eta funtzioak arautzen ditu. Hala, osaerari dagokionez, 5. artikulua ezartzen du Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseilua honakoek osatuko dutela:

“- Elkarteen Udal Erregistroan izena emana duten, sektorearekin zerikusia duten eta gaia interesatzen zaien elkarteen ordezkariak...”

- Kontseiluaren xede den arloarekin lotura zuzena duten bestelako erakundeen ordezkariak, baldin eta alde zuzenetik kontseiluko kide izateko borondatea adierazi badute idatziz, eta horretarako izendatu dituzten eledunaren eta ordezkaren izenak jakinarazi.”



Horri dagokionez, kontseiluko buruak (gizarte gaietako zinegotzi ordezkariak) kontsulta bat egin zion aholkularitza juridikoari, sindikatu eskatzailea barne arautegiaren 5. artikuluko kasuren batean ote zegoen galdetuz. Hala ere, aholkularitzak ondorioztatu zuen sindikatu eskatzaileak ezin zuela kontseiluan parte hartu, Herritarren Erakundeen Udal Erregistroan izena emana edukitzea horretarako beharrezko baldintza delako. Hau da, aholkularitzak ez zuen kontsulta osoki erantzun, aintzat hartu zuen bakarria izan baitzen sindikatua ez zegoela aipatu artikuluko c) atalean, eta ez zuen baloratu aipatu d) kasuan egon ote zitekeen.

Egin genuen informazio eskaeran gai hori berariaz azaldu genuen, eta ez genuen horri buruzko erantzunik jaso. Izan ere, aholkularitza juridikoaren txosteneko ondorioa bidali ziguten, ELA sindikatuak jada jasotakoa.

3. Bestalde, gizarte gaietako zinegotzi ordezkariak hala eskatuta, udalbatzako idazkariak egindako txostenak ezartzen du d) atala aplikagarria izango litzatekeela ELA sindikatuak argudiatutako kasuan, organo horiek dituzten helburuak aipatuz.

Ondorio horietarako, eztabaidagarria den arren, 5. artikuluko d) atalak hitzez hitz dioena ikusirik, "erakunde" eta "zuzenean lotetsiak" terminoei dagokienez, kasu hori sindikatu bati aplikagarria bazaio, barne arautegiko 4. artikulua arautzen duen Sektore Kontseiluaren funtzioak aintzat hartu beharko lirarteke. Horien artean hauek aipa ditzakegu:

- Adinekoen bizi kalitatea sustatzea eta babestea.
- Tartean dauden edo interesa duten sektoreek, erakundeek eta pertsonen zuzenean parte har dezatela sustatzea.
- Asoziazionismoa eta pertsonen arteko eta erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea.
- Pertsonen eskubideak babesteko bideratzen diren udaleko politika eta jardueren osoak sustatzea, esku-hartze orokorrak behar dituzten arazoak ez sektorializatzeko aldera.

Gainera, egindako eskaera ebazteko garaian, 2008-2011 Herritarren Partaidetzarako Plan Zuzentzailea aintzat hartu behar da. Plan horrek adierazten du herritarren partaidetzarako ereduak, Gasteizko Udalak aukeratu duenak, hiru dimentsio identifikatzen ditu, organo finkoekin **bateragarriak eta osagarriak** direnak: dimentsio globala, udalerriko Gizarte Kontseilua organo gisa duena; dimentsio sektoriala, Sektore Kontseilu bidezkoa; eta lurraldeko dimentsioa, Lurralde Kontseilu bidezkoa.

Azken batean, planak adierazten du hiru dimentsio horiek ez direla iragazgaitzak eta elkarren arteko harremana garrantzitsua dela. Izan ere, zenbait gai, duten izaeragatik, dimentsioetako batean baino gehiagotan landu beharko dira.





Arrazoi beragatik, **erakunde batzuek, nahi izanez gero, parte hartzerako eremu batean baino gehiagotan esku hartuko dute.**

Azkenik, kontuan hartu behar da, ELA sindikatuak jada udalerriko beste bi Sektore Kontseilutan parte hartzen duela eta kontseilu horietako arautegia Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseilurako ezarrita dagoen Barne Arautegiaren berbera dela.

4. Bukatzeko, ELA sindikatuak Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluan parte hartzeko egindako eskaeraren izapidea aipatu behar dugu.

Sindikatu interesdunaren eskutik jasotako jakinarazpena kez ditu betetzen egintza administratiboen eta ebazpenen legezko baldintzak eskatzailearen interesa keta eskubideak eragina dutelako. Izan ere, jakinarazpenak ez du barne hartzen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58.2 artikulua eskatzen dituen elementuak (eskumeneko organoak ekintzari buruz egindako testu osoa, ezarritako prozeduraren arabera, administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez adieraztea, zein organori aurkez dakizkiokeen,...).

Hala, gure esku-hartzearen ondorioz, udalbatzako idazkariari kontsulta egin zitzaion ELA sindikatuak Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluan parte hartzeko egindako eskaerari buruz. Kontsulta hori adierazitako moduan bideratu zen, eskumeneko organoak gaiari buruz berriazko erabakirik eman ez duen arren.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

13/2010 GOMENDIOA, maiatzaren 17koa, Gasteizko Udalari egina

Beharrezkoak diren izapideak egin ondoren, ELA sindikatuak Hirugarren Adinekoen Sektore Kontseiluan parte hartzeko egin duen eskaera legez ebatz eta jakinaraz dezala.